


# ARKITEKTURA

# ARQUITECTURA

## 2007KO MARTXOAREN 12TIK 18RA

## DEL 12 AL 18 DE MARZO, 2007

Guggenheim Bilbao Museoak, Erromako DOC FESTekin lankidetzan, arkitekturaren inguruko dokumental batzuk aurkeztuko ditu, arteei buruzko Nazioarteko Dokumentalen Festival di Palazzo Venezia-tik aukeratuak. Antonella Greco eta Veronica Fragola dira komisarioak.

Espazioa eta bolumena, argitasuna eta iluntasuna, multzoak eta xehetasunak, arkitekturari nahiz zinemari dagozkien gaiak dira. Zinema dokumentalaren bidez bi adierazpide eta komunikabide horiek betidanik agertu izan dira elkartuta. Arkitekturako obra bat inguratzea, barruan dituen espazioen eremu intimoetan barneratzea, izan ditzakeen bideak eta izan ezin ditzakeenak agerian uztea eta bertako argi-zuloetatik eta bolumenetatik bidaiatzea dira dokumentalen zuzendari batek izan ohi dituen lehentasunak.

Dokumentalak transmititzen duen argitasuna, soiltasuna, igarmena eta zentzua dira hartutako bide mehar horretatik zuzendaria gidatzen dutenak; bidaia latza zenbaitetan, aldi honetan adibidez, Guggenheim Bilbao Museoan aurkeztera iritsi arte.

Rubino Rubinik, DOC FEST-en zuzendariak, aurkeztuko du zikloa astelehenean, martxoak 12an, 19:00etan

El Museo Guggenheim Bilbao en colaboración DOC FEST de Roma, presenta una selección de documentales sobre arquitectura del Festival di Palazzo Venezia–Festival Internacional de Documentales sobre las artes, comisariada por Antonella Greco y Veronica Fragola.

Espacio y volumen, claridad y oscuridad, conjuntos y detalles son temas que pertenecen a la arquitectura tanto como al cine. La fusión de estas dos formas de expresión y comunicación a través del cine documental siempre ha subyacido en ellas. Rodear una obra arquitectónica, penetrar en el ámbito íntimo de sus espacios interiores, revelar sus sendas posibles o imposibles y viajar por entre sus lucernarios y volúmenes son las prioridades de un realizador de documentales.

Claridad, simplicidad, lucidez y el sentido de lo que el documental transmite son lo que lleva al director por ese estrecho sendero que ha escogido; un duro viaje a veces hasta llegar, como en esta ocasión, a su presentación en el Museo Guggenheim Bilbao.

Rubino Rubini, director de DOC FEST, presentará el ciclo el lunes 12 de marzo a las 19:00 h.



**ASTELEHENA, MARTXOAK 12 | LUNES, 12 DE MARZO**

### *Generation Yamakasi*

**Yamakasi belaunaldia | Generación Yamakasi**
**ZUZENDARIA | DIRIGIDO POR:** Mark Daniels 2005, Frantzia | Francia
**FOTOGRAFIA | FOTOGRAFÍA:** Mark Daniels
**GIDOIA | GUIÓN:** Emmanuelle Baude, Tatiana Andrews, Julie Martinovic
**PRODUKZIOA | PRODUCCIÓN:** Api Productions, FRANCE 2, TSR, SBS eta TF1 Video-ren koprodukzioa, GA&A Productions-ekin lankidetzan | Api Productions en coproducción con FRANCE 2, TSR, SBS, TF1 Video, en asociación con GA&A Productions

Yamakasi-entzat *Lekuz mugitzeko artea* bizimodu bat da. Paris inguratzen duten *hiri berrietatik* lasterka, hormetatik igoz, balkoietatik zabuka ibiliz eta zabaltzetatik salto eginez, hormigoizko arkitektura zapaltzailea paisaia bihurtzen da haiei esker, fantasia, jolasa eta aukera amaigabeak eskaintzen dituen paisaia. Dokumentalaren ardatza hauxe da, Yamakasiek, hirietako artista-akrobata horiek, diziplinak, borondateak eta gogoak bultzatuta aldirietako gazteak eta euren buruak aldatzeko duten gaitasun hori. [80' gaztelaniara bikoiztua]

Para los Yamakasi el *Arte de desplazarse* es un modo de vida. Corriendo a través de las *nuevas ciudades* que rodean París, trepando muros, balanceándose desde los balcones y saltando desde azoteas, transforman la opresora arquitectura de hormigón en paisajes de fantasías, juegos e infinitas posibilidades. El nudo del documental es la historia de cómo los Yamakasi, artistas-acróbatas urbanos, transforman a la juventud de los suburbios y a sí mismos a través de la disciplina, la fuerza de voluntad y el deseo. [80' doblada al español]



**ASTEAZKENA, MARTXOAK 14 | MIÉRCOLES, 14 DE MARZO**

### *Building the Gherkin*

**Gherkin eraikitzen | Construyendo el Gherkin**
**ZUZENDARIA | DIRIGIDO POR:** Mirjam von Arx, 2005 Suitza | Suiza
**FOTOGRAFIA | FOTOGRAFÍA:** Fred Rotkopf
**GIDOIA | GUIÓN:** Janet Taylor
**PRODUKZIOA | PRODUCCIÓN:** Condor Communications & Ican films

Londresko dorre berri batean altzairuzko aurreneko habea jarri dute eta orduan zalantza bat sortu zaie guztiei: erabaki zuzena ote da ikono berri bat, dorre berri bat Londresko finantza-barrutiaren erdian eraikitzea, dagoeneko bi bonba jarri dituzten lekuan? Norman Fosterrek, Ingalaterrako arkitekto irudimentsuenetakoak, honela definitu du Londresko Swiss Re enpresarentzat egin duen eraikinaren diseinua: "erradikala ikuspegi sozial, tekniko, arkitektoniko eta espazialetik". [90' JB ingelesez]

Cuando se coloca la primera viga de acero en una nueva torre en Londres, surge una cuestión en la mente de todos: ¿es una decisión correcta erigir un nuevo icono, una nueva torre en medio del distrito financiero de Londres en un lugar en el que ya han puesto dos bombas? Norman Foster, uno de los arquitectos más visionarios de Inglaterra, califica su diseño del edificio de Swiss Re de Londres como "socialmente, técnicamente, arquitectónicamente y espacialmente radical". [90' V.O. inglés]



**OSTIRALA, MARTXOAK 16 | VIERNES, 16 DE MARZO**

### *Shibam: Chicago of the desert*

**Basamortuko Chicago | El Chicago del desierto**
**ZUZENDARIA | DIRIGIDO POR:** Stefan Tolz, 2004, Alemania
**FOTOGRAFIA | FOTOGRAFÍA:** Sorin Dragoi
**GIDOIA | GUIÓN:** Stefan Tolz, Gerhard Schabel
**PRODUKZIOA | PRODUCCIÓN:** Filmquadrat

Shibami "basamortuko Chicago" deitzen diote, mila urtetik gora dituen hiri honek Iparramerikako hiriaren antzeko perfila duelako. Pezoz egindako 500 etxe orratz baino gehiago (batzuk zortzi pisukoak) daude elkarren ondoan pilatuta, eta bertako kale estuek labirintoak ematen dute. Hadramauteko antzinako oasiaren hiriburua izan zen Shibam, eta intsentsuaren ibilbide famatua abiatzen zen lekua duela 400 urte. [53' JB ingelesez]

A Shibam le llaman el "Chicago del desierto" porque esta ciudad de más de mil años tiene un perfil similar al de la ciudad norteamericana. Más de 500 rascacielos de adobe (algunos de hasta ocho pisos) se apilan unos junto a otros y las estrechas callejas recuerdan laberintos. Shibam fue la capital del antiguo oasis de Hadramaut y el punto de partida de la legendaria Ruta del incienso hace 400 años. [53' V.O. inglés]

### *Regular or Super: Views on Mies van der Rohe*

**Regular o súper: visiones sobre Mies van der Rohe | Normala edo super: Mies van der Roheren gaineko ikuspegiak**
**ZUZENDARIA | DIRIGIDO POR:** Joseph Hillel, Patrick Demers, 2004, Kanada | Canada
**FOTOGRAFIA | FOTOGRAFÍA:** François Dutil
**GIDOIA | GUIÓN:** Patrick Demers
**PRODUKZIOA | PRODUCCIÓN:** Quatre par Quatre

Eraikin enblematikoak diseinatu izanagatik ospetsu, besteak beste New Yorkeko Seagram, Torontoko Dominion Centre eta Chicagoko hainbat eraikin ere, sortu zituen diseinu minimalistengatik nabarmendu zen van der Rohe. Purutasuna eta soiltasuna lortzeko haren obsesioak eta "gutxiago gehiago delako" haren uste osoak eragin handia izan zuen forma eta funtzioa elkartu zituen moduan, gure benetako bizimodua hobeto islatzen duen arkitekturan kanpoarekin loturak sortuz. [56' gaztelaniara bikoiztua]

Célebre por diseñar algunos edificios emblemáticos como el Seagram de Nueva York, el Dominion Centre de Toronto y numerosas construcciones de Chicago, van der Rohe fue más conocido por sus diseños minimalistas. Su obsesión por la pureza y simplicidad, y su convencimiento de que "menos es más", influyó en la forma en que combinó forma y función creando conexiones con el exterior en una arquitectura que refleja mejor nuestra forma real de vivir. [56' doblada al español]



**LARUNBATA, MARTXOAK 17 | SÁBADO, 17 DE MARZO**

### *The socialist, the architect and the twisted tower*

**Sozialista, arkitektoa eta dorre bihurritua | El socialista, el arquitecto y la torre en giro**
**ZUZENDARIA | DIRIGIDO POR:** Fredrik Gertten 2005, Suedia | Suecia
**FOTOGRAFIA | FOTOGRAFÍA:** Ulf Södergren, Erik Bäving
**GIDOIA | GUIÓN:** Marie-Louise Bordinggard, Olivier Bugge Coutté
**PRODUKZIOA | PRODUCCIÓN:** WG Film

Film honek gorputz enbor bihurrituaren atzean dagoen intrigazko historia kontatzen digu, Europako pisu-eraikin altuena delarik. Asko arriskatu diren bi gizon dira protagonistak: mundu osoan ospea zabaldua duen Santiago Calatrava arkitektoa bere aurreneko etxe orratzari aurre egiten ari zaio; eta hiri ertain bateko eraikuntza-enpresa bateko gerentea, politikari izandakoa, duen eragin guztiaz baliatu da proiektu hori errealitate bihurtu ahal izateko. Baina kostuak izugarri igo dira. [60' gaztelaniara bikoiztua]

El film narra la intrigante historia existente tras el torso en giro, el edificio de pisos más alto de Europa. Los protagonistas son dos hombres que arriesgan mucho: el mundialmente famoso arquitecto Santiago Calatrava afronta su primer rascacielos; y el gerente de una constructora de una ciudad mediana y antiguo político utiliza toda su influencia para hacerlo realidad. Pero los costes se disparan. [60' doblada al español]



### *Steven Holl. The Body in Space*

**ZUZENDARIA | DIRIGIDO POR:** Michael Blackwood 2003, AEB | USA
**FOTOGRAFIA | FOTOGRAFÍA:** Seth Schneidman
**GIDOIA | GUIÓN:** Julie Sloane
**PRODUKZIOA | PRODUCCIÓN:** Michael Blackwood Productions, NY

Iparramerikako arkitekto onenetako baten erretratu osatua. Helsinkiko arte garaikideko Kiasma Museoaren eraikuntza-fasean filmatutako dokumental honek Peter Eisenman bezalako maisuen ikasbideak garatuz laurogeita hamarreko hamarkadan sortutako arkitektoen belaunaldiaren filosofia aditzera ematen du. [58' JB ingelesez]

Completo retrato de uno de los mejores arquitectos norteamericanos. Filmada durante la construcción del Museo de arte contemporáneo de Helsinki (Kiasma), este documental presenta la filosofía de una generación de arquitectos que surgió en los años noventa desarrollando las enseñanzas de maestros como Peter Eisenman. [58' V.O. inglés]

### *Building on the Past: I.M. Pei and The Royal Arsenal*

**Lehenaldiaren gainean eraikitzen: I.M. Pei eta Royal Arsenal | Construyendo sobre el pasado: I.M. Pei y el Royal Arsenal**
**ZUZENDARIA | DIRIGIDO POR:** Jeremy Fekete 2005, Alemania
**FOTOGRAFIA | FOTOGRAFÍA:** Kay Rostásy
**ERREALIZADOREA | REALIZADOR:** Markus Aha
**PRODUKZIOA | PRODUCCIÓN:** Rundfunk Berlin Brandenburg, ARTE, Cine PLUS.



Royal Arsenali itsatsitako eraikina, Königliche Zeughaus, Alemaniako Historiaren Museoa barnean duena, I.M. Peik diseinatu zuen eta arkitekto txinatar-amerikar batek Prusiako historiaren inguruan egindako eraikinaren adibidea da. Bi aldi desberdin, bi historia desberdin adierazten dituzten bi eraikin, hunkiarazteko moduan aurkeztuta. [26´. JB ingelesez]

El anexo al edificio del Royal Arsenal, la Königliche Zeughaus, que alberga el Museo histórico alemán es obra de I.M. Pei y ejemplo de edificio de un arquitecto chino-americano realizado sobre la historia prusiana. Dos edificios que representan dos épocas distintas, dos historias que contrastan y se presentan de una forma emocionante. [26´. V.O. inglés]



**IGANDEA, MARTXOAK 18 | DOMINGO, 18 DE MARZO**

### *Living Architecture: the Work of Tadao Ando*

**Arkitektura bizia: Tadao Andoren obra | Arquitectura viva: la obra de Tadao Ando**
**ZUZENDARIA | DIRIGIDO POR:** Shuichiro Hanabusa, Jun Kawaguchi 2002, Japonia | Japón
**FOTOGRAFIA | FOTOGRAFÍA:** Shinsaku Matsuoka
**GIDOIA | GUIÓN:** Hideki Tonouchi
**PRODUKZIOA | PRODUCCIÓN:** NHK Japan Broadcasting Corp.

Film honek Tadao Andoren estudioko eguneroko lana azaltzen digu, hondartzan eraikiko duten hormigoizko etxe txiki baten sorrera, hain zuzen. Bertan ikusi ahal izango dugu zimenduak nola jartzen dituzten eta hormigoia nola isuri eta leuntzen duten, baita egituraren bukaera harrigarria ere. [43' JB ingelesez]

Este film describe el trabajo diario del estudio de Tadao Ando durante la concepción de una pequeña casa de hormigón construida en la playa. En él contemplamos cómo se van colocando los cimientos, el vertido y pulido del hormigón y la sorprendente conclusión de la estructura. [43' V.O. inglés]



### *Magician of Light: Richard Meier Architect*

**Argiaren aztia: Richard Meier, arkitektoa | El mago de la luz: Richard Meier, arquitecto**
**ZUZENDARIA | DIRIGIDO POR:** Gero von Boehm 2004, Alemania
**FOTOGRAFIA | FOTOGRAFÍA:** Maurizio Carta, Uli Fischer, Elia Lyssy, Federico Valeriani, Aiken Weiss
**GIDOIA | GUIÓN:** Pascal Chalon, Andreas Tiletzek
**PRODUKZIOA | PRODUCCIÓN:** Interscience Film

Geometriak eta formak harmonia handiz bat eginda agertzen direlako dira famatuak Richard Meierren eraikinak. Urteetan zehar, bere konposizioak, kubo, erdi-esfera, uhin, triangelu eta pilareez osatuak, mundu guztian zabaldu dira. Zuria da arkitekto honen ikur bereizgarria —gure garaiko adierazgarrienetarikoa—, eta zoragarriro erabiltzen du kolore hori argiarekin, itzalarekin eta naturarekin etengabe jolasean aritzeko. [57' JB ingelesez]

Los edificios de Richard Meier son famosos por su armonioso juego de geometrías y formas. A lo largo de los años, sus composiciones de cubos, semiesferas, ondas, triángulos y pilares han surgido por todo el mundo. El blanco es la marca característica de este arquitecto —uno de los más significativos de nuestro tiempo—, que utiliza de forma fascinante para su incesante juego de luz, sombra y naturaleza. [57' V.O. inglés]

### *A Workshop for Peace*

**Bakerako tailerra | Taller para la paz**
**ZUZENDARIA | DIRIGIDO POR:** Peter Rosen 2005
**FOTOGRAFIA | FOTOGRAFÍA:** Joel Shapiro
**GIDOIA | GUIÓN:** Donald Klosek
**PRODUKZIOA | PRODUCCIÓN:** Peter Rosen Productions

*A workshop for peace* filmak Nazio Batuen fundazio-kartan bildutako ideal handiak eta nazioarteko komunitateak bakea behin betiko lortzeko duen gogo bizia bereganatu dituen nazioarteko arkitekto talde bat aurkezten digu, ideal horiek beiraz, altzairuz eta harriz egindako dorre moderno batean irudikatu dituena. Le Corbusier frantsesa, Wallace Harrison amerikarra eta nazioarteko arkitekturako izen handiko beste bederatzi arkitekto buru direla, taldearen obra Nazio Batuen erakundearen beraren fundazioaren metafora da. [54' JB ingelesez]

*A workshop for peace* muestra a un grupo internacional de arquitectos que toma los grandes ideales de la carta fundacional de Naciones Unidades y los deseos de la comunidad internacional por una paz sostenida y los torna en una moderna torre de vidrio, acero y piedra. La obra de un grupo de arquitectos liderado por el francés Le Corbusier, el americano Wallace Harrison y otros nueve grandes nombres de la arquitectura internacional es una metáfora de la fundación de la propia organización de Naciones Unidas. [54' V.O. inglés]

DOC FEST

**LEKUA:** Museoaren Entzungela
**ORDUTEGIA:** Proiekzioak 19:45ean hasiko dira lanegunetan; larunbatetan eta igandeetan, programazioa 18:00etan hasiko da.
**SARRERAK:** 1,5 € Museoaren Lagunak, aldez aurretik txartela Lagunen leihatilan erakutsita; 3 € publiko orokorra.
**INFORMAZIO GEHIAGO:** asteartetik igandera, 10:00etatik 19:30era, 944 35 90 80 telefonoan.

Lan guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira, DVD formatuan, eta gaztelaniaz azpititulatuta (zehazki besterik adierazten denean izan ezik). Programazioan aldaketak egon daitezke.

**LUGAR:** Auditorio del Museo
**HORARIO:** Inicio de la proyecciones los días laborables a las 19:45 h; sábados y domingos la programación comenzará a las 18:00 h
**ENTRADAS:** 1,5 € Amigos del Museo previa presentación de su carné en la taquilla de Amigos, 3 € público general.
**PARA AMPLIAR INFORMACIÓN:** de martes a domingo, de 10:00 a 19:30 h. en el teléfono 944 35 90 80.

Todas las piezas se proyectarán en versión original, formato DVD, con subtítulos en español (salvo indicación específica). La programación puede estar sujeta a modificaciones.




**2007KO MARTXOAREN 20TIK 25ERA** | **DEL 20 AL 25 DE MARZO, 2007**

Guggenheim Bilbao Museoak zinema digitalaren jaialdi berritzaileenaren hamargarren edizioan parte hartuko du, RESFESTen alegia, sei kontinenteak zeharkatzen dituen nazioarteko zirkuituan sartuz: Chicagotik Tokiora, Buenos Aires, Sidney, Lurmutur Hiritik eta Berlinetik igaroz; 45 hiri eta 200.000 ikusle baino gehiago.

RESFEST honela hasi zen, aurreneko DV kamerak eta bideo digitaleko edizio-sistemak zinemagileen eskuetara iristen hasi zirenean. Baten batzuek iragarri zuten orduko bideo-irakurgailu eramangarrien agerraldia; beste batzuek, berriz, zera galdetzen zieten euren buruei, Internetek zuzendari independenteentzako banaketarako bide berriak irekiko ote zituen. Hamar urte geroago, teknologiari buruzko iragarpen haiek publikoarekin bizitasun handiz konektatzea ahalbidetuko zietelakoan, errealitate bihurtu dira dagoeneko. Eta orain, RESFEST munduko erakusleiho bihurtu da leku guztietako sortzaile berritzaileentzat.

Carolina López, Resfest Spain-eko komisarioak asteartean, martxoaren 20ean, 19:45ean, RESFEST | 10 osatzen duen aparteko bilduma hau aurkeztuko du: film laburrak, bideo musikalak, animazio-lan esperimentalak eta mugimenduzko diseinu grafikoa, alegia.

El Museo Guggenheim Bilbao participa en la décima edición del festival de cine digital más vanguardista: RESFEST, integrándose en un circuito mundial que recorre los seis continentes: desde Chicago a Tokio pasando por Buenos Aires, Sidney, Ciudad del Cabo y Berlín; 45 ciudades y más de 200.000 espectadores.

RESFEST comenzó cuando las primeras cámaras de DV y sistemas de edición de vídeo digital empezaban a llegar a las manos de los cineastas. Entonces, algunos ya predecían la aparición de los reproductores portátiles de vídeo, mientras otros se preguntaban si Internet abriría nuevas vías de distribución para los directores independientes. Diez años más tarde, aquellas predicciones sobre cómo la tecnología permitiría a los creadores conectar con su público de nuevas y excitantes maneras se han hecho realidad. Y en este tiempo, RESFEST se ha convertido en un escaparate global para creadores innovadores de todas partes.

Carolina López, comisaria de Resfest Spain presentará el martes 20 de marzo a las 19:45 h esta excepcional colección de cortometrajes, vídeos musicales, trabajos de animación experimental y diseño gráfico en movimiento que forman el programa de RESFEST | 10.

Guggenheim BILBAO 10 URTE AÑOS



**ASTEARTEA, MARTXOAK 20 | MARTES, 20 DE MARZO**

### *Shorts One: State of The Art*

**IRAUPENA | DURACIÓN**: 1 h 22'

Resfesteko film labur onenen programa famatuan narrazio-lanak, dokumentalak, animazioa eta mugimenduzko grafikoak elkartzen dira. Konbinazio horrek nazioarteko izaera nabarmena ematen dio programari, munduko hainbat lekutatik sortutako lanak baitira: Hego Afrika, Korea, Holanda, Erresuma Batua edo Estatu Batuak. *The Tale of the How* lanarekin batera, The Blackheart Gang-en debuta alegia, Run Wrake, PES eta Chris Shepherd famatuak ere izango dira, baita munduko estreinaldiak, Johan Kramerren *0.08*, Stefan Nadelmanen *Food Fight* eta *The Box* thriller kontzeptuala ere, Richard Fenwick maisuarena.

El emblemático programa de los mejores cortometrajes de Resfest combina piezas narrativas, documentales, animación y gráficos en movimiento. La combinación tiene un fuerte componente internacional con trabajos de países como Sudáfica, Corea, Holanda, Reino Unido o EEUU. Junto a *The Tale of the How* de los debutantes The Blackheart Gang, se incluyen los reconocidos Run Wrake, PES y Chris Shepherd junto a estrenos mundiales de Johan Kramer *0.08*, Stefan Nadelman con *Food Fight* y el thriller conceptual *The Box* del maestro Richard Fenwick.

### *Shorts Two: Out of The Box*

**IRAUPENA | DURACIÓN**: 1 h 20'



Pelikula ikusgarriak, Alemania, Kolonbia, Kroazia, Suedia eta Brasilgo zinemagileenak. Pelikula horietan gaiak eta formak muga konbentzionaletatik harantz doaz. Programa honetan aurkeztuko dira: *Phobias*, Bert and Bertierena, *Family Ties: Dreams and Desires*, Joanna Quinnena, *Leviatán*, Simon Bogojevic-Narathena eta *Tiger*, Guilherme Marconderena.

Películas espectaculares de cineastas de Alemania, Colombia, Croacia, Suecia y Brasil en las que sus temas y formas van más allá de los límites convencionales se presentan en este programa; *Phobias* de Bert and Bertie, *Family Ties: Dreams and Desires* de Joanna Quinn, *Leviatán* de Simon Bogojevic-Narath y *Tiger* de Guilherme Marconde.



**ASTEAZKENA, MARTXOAK 21 | MIÉRCOLES, 21 DE MARZO**

### *Shorts Three: Fear and Trembling*

**IRAUPENA | DURACIÓN**: 1 h 20'

Programa iluna eta makurra, ikusleak beldurrarazteko lan kezkagarriak, haien subkontzientean barneratzen direnak. Halako lanen artean ikusi ahal izango ditugu: munduko estreinaldia izango den *Moloch*, Marcin Pazera poloniarrarena, *Bugcrush*, Carter Smithena eta *Jona/Tomberry*, Rostorena.

Programa oscuro y siniestro que busca asustar el espectador penetrando en su subconsciente con obras intrigantes que incluyen el estreno internacional de *Moloch* del polaco Marcin Pazera, *Bugcrush* de Carter Smith y *Jona/Tomberry* de Rosto.

### *Everything under The Sun: Filmmaking with a Purpose*

**IRAUPENA | DURACIÓN**: 1 h 14'

Estilo heterogeneoa eta zeharo militantea duten lan hauek bizitza modernoaren konplexutasunak markatutako lanak dira: ingurumenaren hauskortasuna, ama-zelulekin egiten diren ikerlanak, deforestazioa, indar nuklearren ugaltzea edo globalizazioaren kontrako mugimendua. Horien artean ikusi ahal izango ditugu *Hungry Planet*, Howard Hao-An Tsairena eta *Greenpeace-Half Life*, David Lea eta John Williamsena.



Las complejidades de la vida moderna marcan esta selección de trabajos de estilos heterogéneos e inequívocamente militantes. Desde la fragilidad del medio ambiente, la investigación con células madre, la deforestación o la proliferación nuclear al movimiento antiglobalización. Incluye *Hungry Planet* de Howard Hao-An Tsai y *Greenpeace-Half Life* de David Lea y John Williams.



**OSTIRALA, MARTXOAK 23 | VIERNES, 23 DE MARZO**

### *By Design*

**IRAUPENA | DURACIÓN**: 1 h 20'

Mugimenduzko diseinu grafikoan egiten den onena. Infografia, animazio-teknika berriak eta telebistarako diseinua bat eginda agertzen dira programa honetan, hainbat inspirazio-iturri izan dituzten goi- eta behe-fidelitateko lanekin. Takagi Masakatsu eta bere *Bloomy Girl*, Impactists eta *Ranch*, Lope Serrano eta *Pale Blue Eyes*, Ben Strokes maisuak munduko estreinaldia izango den *Dub Projector* lanarekin, eta Graham Woods, Scout Walkerren *Jesse* abestiarentzat egin duen bideo hipnotikoarekin.

Lo mejor del diseño gráfico en movimiento, infografía, técnicas de animación innovadoras y diseño para televisión se reúnen en este programa con piezas de alta y baja fidelidad con inspiraciones diversas. Takagi Masakatsu y su *Bloomy Girl*, Impactists y *Ranch*, Lope Serrano y *Pale Blue Eyes* junto con el regreso de los maestros Ben Strokes y su estreno mundial *Dub Projector* y Graham Woods con su hipnótico vídeo para el tema de Scout Walker *Jesse* conforman el programa.



### *Cinema Electronica*

**IRAUPENA | DURACIÓN**: 1 h 25'

Bideo musikalaren generoan gero eta protagonismo handiagoa hartzen ari dira oraingo hip hop musika eta musika elektronikoa. Basement Jaxx, Hifana eta Massive Attack, Robert Halesek Gnarls Barkleyrentzat egindako *Smiley Faces* kliparekin batera agertzen dira; +Cruz eta Shane Lesterrek DJ Uppercut japoniarraren *What You Standin' For* egin dute. Eta bi talentu berri barneratu dira, David O'Reilly, Venetian Snares taldearentzako *Szamar Madar* lanarekin, eta Nadia Micault, Sir Aliceren *L'Amour Made in Taiwan* abestiarentzat egin duenarekin. Nicolas Randall australiarrak amaiera emango dio jaiari *All He Needs* lanarekin, Mike Millsek *Air All I need* abestirako egin zuen bideo klasikoaren bertsio lotsagabearekin, alegia.

El género del vídeo musical otorga cada vez una mayor protagonismo a los temas de hip hop y electrónica más recientes. Basement Jaxx, Hifana y Massive Attack aparecen junto al clip de Robert Hales *Smiley Faces* para Gnarls Barkley; +Cruz y Shane Lester firman *What You Standin' For* del japonés DJ Uppercut. Se incluyen dos nuevos talentos, David O'Reilly con Szamar Madar para Venetian Snares y Nadia Micault para el tema de Sir Alice *L'Amour Made in Taiwan*. El australiano Nicolas Randall cierra la fiesta con *All He Needs* una irreverente versión del clásico vídeo de Mike Mills para *Air All I need*.



**LARUNBATA, MARTXOAK 24 | SÁBADO, 24 DE MARZO**

### *Videos That Rock!*

**IRAUPENA | DURACIÓN**: 1 h 21'

Rock bideo-sorta eklektiko honetan ikusi ahal izango ditugu: Hot Chipen *Over and Over* abestirako Nima Nourizadehek egindako lan parodikoa, Joel Trussellen *War Photographer* klipa Jason Forrestentzat, *Fortress* Pinbackentzat, Chris Hopewellen *Marble House* The Kife taldearentzat eta Monkmusen *Travel is Dangerous* Mogwairentzat.

Esta ecléctica selección de vídeos de rock incluye este año la paródica pieza de Nima Nourizadeh para la canción de Hot Chip *Over and Over*, el clip de Joel Trussell *War Photographer* para Jason Forrest, *Fortress* para Pinback, *Marble House* de Chris Hopewell para The Kife y *Travel is Dangerous* de Monkmus para Mogwai.



### *Radiohead, The Visionaries: A Decade of Breaking New Talent*

**IRAUPENA | DURACIÓN**: 1 h 14'

Musikaren arloan duten garrantziaz aparte, Yorke, Greenwood, O' Brien eta Selwayk zuzendari berri piloa ezagutu dute haien bideo musikal artistiko eta zainduei esker, horien artean Jonathan Glazer, Chris Hopewell edo Shynola irudimentsuak. Programan barne hartu diren bideoen artean ikusi ahal izango ditugu *No Surprises*, *Go to Sleep* eta *Paranoia Android* arrakasta handikoak, Monkey Hubek *Creep* abestiaren bertsio akustikorako egin duen animazio-lan bitxia, Kid A diskoaren iragarki laburren bilduma, eta RadioHeaden TV *Down is the New Up* eta *Harrowdown Hill* bideoak.

Más allá de su importancia musical, Yorke, Greenwood, O' Brien y Selway han descubierto a una cantidad increíble de nuevos directores gracias a sus artísticos y muy cuidados vídeos musicales. Directores visionarios como Jonathan Glazer, Chris Hopewell o Shynola. El programa se completa con sus éxitos *No Surprises*, *Go to Sleep* y *Paranoia Android*, una rareza en animación de Monkey Hub para la versión acústica de *Creep*, la colección de anuncios breves de Kid A y los vídeos de RadioHead TV *Down is the New Up* y *Harrowdown Hill*.



**IGANDEA, MARTXOAK 25 | DOMINGO, 25 DE MARZO**

### *Unsung Heroes: Gems from The Archive*

**IRAUPENA | DURACIÓN**: 1 h 26'

Redfesten hamargarren urteurrena ospatzeko, jaialdi honetan eman diren bideoklip onenak aurkeztuko dira. Ez dira oihartzun handiko arrakastak, H5ek Röyksoopentzat egindako *Remind Me* izan ezik, duten balio estetikoagatik nabarmendu diren klipak baizik: Ruben Fleischerren *We Know Something You Don't Know* bideoa DJFormatentzat, Alex Budovskyren *Bathtime in Clernkenwell*, Air, Cornelius, UNKLE edo Phoenixen klasikoekin batera.

Con motivo del décimo aniversario de Resfest se presentan los mejores videoclips que han pasado por el festival. No se trata de éxitos populares, con la excepción de *Remind Me* de H5 para Röyksoop, sino que destacan por su valor estético: el vídeo de Ruben Fleischer *We Know Something You Don't Know* para DJFormat, *Bathtime in Clernkenwell* de Alex Budovsky junto a clásicos de Air, Cornelius, UNKLE o Phoenix.



### *Resfest Spain*

**IRAUPENA | DURACIÓN**: 1 h 5'

Joan den urtean hasiera eman zitzaion programa honi, gure herrialdeko ikus-entzunezkoen sektore independente edo industrial berritzaileena hedarazteko asmotan. Egile hauen lanak barne hartu ditu: Imanol Garaizabalen *La Pieza*, Luis Cerveróren *Liar to Love* edo Goal Studio etxearen *Historias de papel*.

Este programa se inauguró el año pasado con la intención de dar visibilidad al sector audiovisual, independiente o industrial más innovador de nuestro país e incluye piezas de autores como Imanol Garaizábal con *La Pieza*, Luis Cerveró y *Liar to Love* o la productora Goal Studio con *Historias de papel*.



### *A Decade of Resfest: 10 Seminal Short Films*

**IRAUPENA | DURACIÓN**: 1 h 30'

Zikloari amaiera emateko erreferentziazko hamar film labur aurkeztuko dira, jaialdiak bete dituen hamar urteak bildu eta Resfesteko errealizadoreek baliabide hau berriro asmatzeko erabiltzen dituzten modu anitzak erakusteko. Bertan ikusi ahal izango ditugu *Tongues and Taxis*, Michael Overbeckena, *Le Grand Sommeil*, Pic Pic Andrérena, *Terminal Bar*, Stefan Nadelmanena, *Snack and Drink*, Bob Sabistonena, *Fast Film*, Virgil Wildrichena eta *Letter to the President*, David Ellisena

Como cierre final del ciclo se presentan diez cortometrajes de referencia que representan los diez años del festival, ilustrando las múltiples maneras en que los realizadores de Resfest reinventan el medio. *Tongues and Taxis* de Michael Overbeck, *Le Grand Sommeil* de Pic Pic André, *Terminal Bar* de Stefan Nadelman, *Snack and Drink* de Bob Sabiston, *Fast Film* de Virgil Wildrich y *Letter to the President* de David Ellis.

resfest | 10

**LEKUA:** Museoaren Entzungela
**ORDUTEGIA:** Proiekzioak 19:45ean hasiko dira lanegunetan; larunbatetan eta igandeetan, programazioa 18:00etan hasiko da.
**SARRERAK:** 1,5 € Museoaren Lagunak, aldez aurretik txartela Lagunen leihatilan erakutsita; 3 € publiko orokorra.
**INFORMAZIO GEHIAGO:** asteartetik igandera, 10:00etatik 19:30era, 944 35 90 80 telefonoan.

Lan guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira, DVD formatuan, eta gaztelaniaz azpititulatuta (zehazki besterik adierazten denean izan ezik). Programazioan aldaketak egon daitezke.

**LUGAR:** Auditorio del Museo
**HORARIO:** Inicio de la proyecciones los días laborables a las 19:45 h; sábados y domingos la programación comenzará a las 18:00 h
**ENTRADAS:** 1,5 € Amigos del Museo previa presentación de su carné en la taquilla de Amigos, 3 € público general.
**PARA AMPLIAR INFORMACIÓN:** de martes a domingo, de 10:00 a 19:30 h. en el teléfono 944 35 90 80.

Todas las piezas se proyectarán en versión original, formato DVD, con subtítulos en español (salvo indicación específica). La programación puede estar sujeta a modificaciones.